

## **CANVAS EREDUA**

### **Balio proposamena**

Gabonetan betidanik etxeak apaindu izan dira, eta hau egiteko beharrezkoa da dirua. Horretarako "Christmas Rent" empresa sortu dugu merkatuan, eskuragarriagoa izateko apaindura hauek pertsona guztientzat. Familia guztiek ezin dezakete apaingarri guzti horiek erosi haien egoera ekonomikoaren ondorioz, eta empresa honek apaingarriak alokatzeko aukera ematen dio edonori, prezio baxuagoan.

Apaingarriak alokatzeaz gain, aurreko urteetako artikuluak ez metatzeko, trukatu dezakete eta hurrengo alokairuetan deskontuak lortuko dituzte. Produktu hauek suntsituta egon daitezke, eta empresak bigarren aukera bat emango die. Horretarako fabrikan konponduko dira eta berriz alokatzeko prest egongo dira. Baita, modu honetan hondakinak berrerabiltzea lortzen dugu eta murriztea saihatuz.

Gabonetako dekorazio eta artikulu ugari eskaintzen ditugu Christmas Rent izenarekin. Gure produktuek gabonetako zuhaitzak, argiak, apaingarriak, girlandak, irudi apaingarriak eta gehiago dituzte. Gure bezeroei aukera ematen diegu gabonetako denboraldian artikulu horiek alokatzeko, eta horiek entregatzeaz, instalatzeaz eta biltzeaz arduratzen gara. Alokairu-prozesua sinplifikatzen dugu gure web-plataformaren eta aplikazio mugikorraren bidez. Zure etxeko erosotasunetik, nahi dituzun gauzak esploratu, hautatu, eskatu eta ordaindu ditzakezu. Gainera, entregatzeko eta instalatzeko datak aukeratzeko malgutasuna eskaintzen dizugu.

Christmas Rent, urtean behin bakarrik erabiltzen diren dekorazioak erosi eta gordetzeko eragozpenetik askatzen zaitu. Gure balio-proposamena denboraldiaren ospakizuna eskuragarriagoa, errazagoa eta jasangarriagoa izatea da, gabonetako magiaz ahalik eta gehien gozatzeko aukera emanez.